



Jule Goikoetxea ikerlariarekin solasean

Jule Goikoetxea Filosofian Doktore, Kazetari-tzan lizentziatu eta Zientzia Politikoan trebatuak Kanada eta Eskozian burutuko du hurrengo ikerketa Eusko Jaurlaritzak emandako beka bati esker. Euskal Herriko egitura politikoa, egitura sozioekonomikoa eta abertzaletasuna izango ditu ardatz bere lanak. / 4-5. orrialdeak



Kontzertua amaitzean, emozioak gainekza egin zien akordeoi joleei eta eurek ere 25 urtean alboan izan dituztenak gogoratu nahi izan zituzten.

Zero Setteren 25 urte oparo

Emozioz betetako ikuski-zuna eskaini zuen larunbatean Zero Sette akordeoi orkestrak Manuel Lekuona kultur-etxeko areto nagusian, herriko abesbatza,

dantza talde eta musikariekin batera bere 25. urteurrena ospatzeko.

Elias Goikouriak zuzenduta emanaldi bikaina eskaini zuten akordeoi joleek eta bi

ordu iraun zuen kontzertuaren amaieran iritsi zen unerik hunkigarriena. Kontzertuan modu batera edo bestera parte hartu zuten guztiak oholta gainean zeudela,

Zero Settek Antonio Mercero konposatutako Lasarte-Oriako ereserkia jo zuen, Orkestraren lehen zuzendaria bera omen-du zuten eta zenbait orogirari banatu ziren.

Bues-a jaun ta jabe Abend-en

Kontzertu bizi eta dibertigarria eskaini zuen Epi & Blues taldeak ostiral gauerdian Abend-en. Blues, rock'n'roll, funky, jazz, soul eta orokorrean 60 eta 70. hamarkadako doinu klasikoak entzuteko parada izan zen bertan. Bertsio-emanaldiak aurrera egin ahala, jende gehiago gerturatu joan zen kontzertua ikustera. Bi gitarra, baxu bat eta bateriaren eredu klasikoari jarraituz, edozein lekutan eta baliabide gutxirekin sekulako giroa sortu daitekeela erakutsi zuen Iruñeatik etorritako laukoteak. Azpimarragarria soinuaren kalitate ona.



Iruñeatik etorritako lau musikariek zuten guztia eman zuten oholta gainean eta ikusleek eskertu egin zuten hori.

TESTUA /3

Ttakunek aurkeztu ditu hausnarketa prozesuaren emaitzak

TESTUA /6

Lasarte BHI boleibol taldea osatu berri da

TESTUA /6

Michelingo bolo txapelketan segurarrak izan dira nagusi

BEHERAPENAK !

ALBA

ARROPA DENDA



etorri eta probatu !

KOOKAI
NAFNAP
YERSE

Nagusia 65 behea • Lasarte-Oria • Tel.:943 574450



Jule Goikoetxea Ikerlaria

“Euskal demokrazia bat dago”

■ Abenduan Eusko Jaurlaritzaren beka jaso zuela jakin eta ikerketarekin jarraitzeko atak zabaldu zaizkio ■ Dagoeneko Kanada aldean da ikerketaren lehen zatia gauzatu ahal izateko

Jule Goikoetxea donostiarra da jaiotzez baina urtetan Lasarte-Orian bizi izan da. Herriarekin lotura estua izan arren, atzerrian denbora asko eman du bere ikerketak burutzen. Orain berriz atzerrira joateko zain izan ondoren, Eusko Jaurlaritzaren beka lortu eta Kanadan eta Eskozian urte bana egingo ditu. Aspalditik Aralar alderdiari lotua, Amaiur koalizioak Espainiako Kongresurako Gipuzkoagatik aurkeztutako artean laugarrena izan zen azken hauteskondeetan.

Ixtaso MORENO

Filosofian Doktore da, Kazetaritzan lizentziatua eta Zientzia Politikoko ikasketak burutu ditu Cambridgen. Doktoretza ondorengo beka bat eskatu eta erronka, bere ikerketarekin aurrera jarraitu ahal izatea da, horretarako finantzaketa eskuratzeko beharrezkoa zuen. Eusko Jaurlaritzak Gizarte Zientzien arloan beka bakarria eskaintzen duenez, Kanada eta Eskoziako unibertsitatean ere egin zuen eskaera Jule Goikoetxeak.

Zehazki zein da zure ikerketaren gaia, tesia?

Nire ikerketan Euskal Herriko egitura politikoa, egitura sozioekonomikoa eta abertzaletasuna dira ardatzak. Hauek aztertuta, nire tesia honakoa litzateke: gure egitura politikoa egitura sozioekonomikoa baldintzatzen duela eta horren arabera eskakizun politikoa batzuk ere baldintzatzen dituela. Aldi berean, egitura horien harremanaren ondorioz, Euskal Herrian nazionalismo berri bat eratu dela esango nuke.

Aipatutako egiturak direla eta berezko Euskal demokrazia bat dugula defendatzen dut, Espainia edota Kataluniako demokrazietatik desberdina den demokrazia bat.

Administrazioekin oztopoak izan al dituzue ikerketaren gaia dela eta?

Orain arte ez dut arazorik izan. Praktikoki, lehen oztopoak Hezkuntzako beka departamentuak etor zitezkeen.

Objektiboki baloratu dute nire ikerketa proposamena baina egia da, teorikoki, jende asko egon daitekeela ideia eta planteamendu jakin batzuen kontra. Bestetik ohiko ikerketa metodologia jarraitzeko oztopoak izango ditudala uste dut, ez da erraza izango aurrera egitea.

Nondik hasiko duzu ikerketa?

Lehen pausua dagoen legedia aztertzea da. Lurralde Historikoen legea, gure egitura federala, estatutua, autogobernua aztertuta ikusi guzti hauek nola eragin dioten gure egoera sozioekonomikoari. Kohesio maila oso altua da hemen eta jakin nahi dut ea zein punturaino den horrela aipatutako egitura federal hori dugulako.

Katalunian esaterako, oso egitura jakobinoa, zentralizatua dute. Horrek nola eragin dezakeen jakin, izan ere, han kohesioa baxuagoa da faktore gehiago daudelako. Besteak beste immigrazioa integratzeko prozesu zailagoa izan dute eta ikusi nahi dut ea zergatik gertatzen diren alde horiek Euskal Herria eta Kataluniako kohesio mailan. Hau gertatzearen arrazoi egitura politikoa dela defendatzen dut.

Ondoren...

Arlo ekonomikoa landu. Autogobernuari lotuta egiten diren eskakizun politikoa hausnartu, adibidez Ibarretxe Plana. Hau bere garaian Euskadiko Parlamentuan onartua izan zen. Bertan eskakizun politikoa berriak eta zehatzak jasotzen dira. Eskakizun horiek alderatu daitezke 1979koarekin, hau da, Gernikako estatutuarekin baita lehenagoko euskal nazionalismoarekin, 1931ko Estella-Lizarrako estatutuarekin. Nazionalismo berri bat osatu dela litzateke ondorioa.

Kontutan hartuta nazionalismo berri hau biztanlearen %40 etorkinak ziren gizartearen, 70 hamarkadan eratu zela, hau nola gertatu zen azaldu nahi dut. Nire argudio nagusia litzateke, nazionalismoak kultura eta identitatearekin zerikusi handia daukala baina kultura ondorio bezala ulertuta, kultura ez da nazionalismoaren kausa.

Ondorioa litzateke nazionalismoa gure egiturengatik baldintzatuta dagoela. Bai egitura politikorengatik, baita besteak beste, ekonomikoengatik ere.



Nazionalismoak kultura eta identitatearekin zerikusia dauka baina kultura ondorio bezala ulertuta.

Publikatutako tesia bat baduzu ezta?

Argitaratuta dagoena Filosofian egindako tesi doktoral da. Oraingoa Zientzia Politikotan atera nahiko nuke, desberdina da.

Ulertzeko, aurrekoa filosofia politikoa zen. 'Inkomunikazioaren praktika edo gatazka diskurtsiboa' izenarekin, inkomunikazioa diskurtsuaren berezko ezaugarria dela defendatzen nuen. Komunikazioaren eta inkomunikazioaren baldintzak berdinak direla azpimarratuz.

Tesian azaltzen ditudan adibideak Espainia eta Euskadiko parlamentuetan entzuten diren diskurtsuetatik aterata daude. Hauei esker ikus daiteke nola adibidez euskal gatazkaren inguruan, inkomunikazio hori modu nabariaren gertatzen den.

Aztertutako euskal gatazkaren inguruan PP eta PSOE alderdien diskurtsua batetik eta EAJ, Aralar, EA, Batasuna bezalako alderdienak bestetik. Eztabaida eta dialogoak ikertu nituen. Ondorioak ordea zabalagoak ziren. Oso kutsu filosofikoa zuen ikerketak.

Euskal Herritik Cambridgera, zergatik?

EHU-n tesia egin ondoren, Cambridgera joan nintzen master bat egiteko asmotan.

Han Zientzia Politikotako karrera bi urtetan burutzeko aukera eskaini eta masterra beharrez hiru edo lau urte behar izaten nuen. Politika arloko masterraren baino ezagutza gehiago eskuratzeko aukera ona zela irudituko zitzaidan.

Argi al zenukan ikertzaile izan nahi zenuela?

Hasieratik, idazle izan nahi nuen. Ikertzaile izatearena gerora iritsi zen. Baina bai, Filosofiarekin hasi nintzenean lanbidea idazketarekin erlazionatuta egotea nahi nuen hasieratik.

Noiz hasiko duzu ikerketa?

Beka posdoktorala eman ditatez, Kanadara noa gero Cambridge eta ondoren Edinburgora. Ikerketa hemen bukatuko nuke, Leioan, EHUko Zientzia Politikoen sailean.

Lana egiteko modua zein izan da?

Lehen helburua, hiru artikulua idatzi eta argitaratzea litzateke. Lehena Kanadan egingo nuke, Quebec eta Euskal Herriaren arteko nazionalismoa eta autogobernuen ezberdintasunei buruz. Bigarrena, Eskozian egingo nuke Edinburgon, Eskozia eta Euskal Herria alderatu nituzke. Honakoa litzateke ikerketaren lehen zatia, enpirikoa. Azkena, bueltan egingo

nuke, Kataluniarekin ere alde-ratu eta aspektu teorikoak, ondorioak hemen jorratuko nituzke.

Zenbat denbora eman beharko duzu ikerketa egiten?

Helburuen arabera, agian hiru urterako lana izango da. Horrelako ikerketa egiteko hiru edo lau urte behar izaten dira normalean. Dena den, oso aldakorra izan daiteke, askotan aztertzeko hartutako eremu edo gai kopuruaren arabera izaten da.

Nire ustez lan txukuna egiteko, lau urte baino gehiago behar dira. Gizarte zientzian konplexuagoa da. Irakurketa soilak, denbora asko eskatzen du. Aldi berean, geroz eta gehiago irakurri orduan eta lan hobeagoa egiteko.

Unibertsitateko irakasle bezala ikusten duzue zure burua?

Printzipioz, bokazioa ikertzaile izatea da. Egia da hemen ikertzaile izateko unibertsitatean sartu behar dela eta horretarako, klase ordu batzuk eman. Nire beste aukera politikan sartzea litzateke.

Lana bakarrik egiten duzue?

Nik bai. Bekak taldeka eskatu daitezke baina ondo moldatzen naiz bakarrik lan egiten.

Euskal Herria bueltatuko zara edo atzerrian geratzeko asmoa duzue?

Ohituta nago bidaiatzen ibili eta etxetik kanpo egotea baina Euskal Herrian bizi nahi dut. Harreman estua daukat nire herriarekin eta helburua hemen bizitzea da. •



Hitzaldi-aretoan egin zuen aurkezpena Abaraskak eta politika, kultura zein hezkuntza arloko jendea bildu zen bertan.

Abaraska ari da bidea finkatzen

■ Euskaraz diharduten herriko elkarteek osatua, elkarrekin lan egingo dute ■ Larunbatean aurkeztu zituen hausnarketaren emaitzak ■ Asmo sendoa du herria euskalduntzen laguntzeko

Ttakunek 2010ean hasi zuten hausnarketa eta prozesuaren ondorioz zabaldu den bidearen berri eman zuten larunbatean kultur-etxean.

Abaraska da hausnarketaren emaitza garbiena: Lasarte-Orian euskaraz lan egiten duten elkarteek osatua, herria euskalduntzeko gogoari helduz, hainbat ekimen antolatuzeko eta elkarrekin lan egiteko asmoa adierazi du. Abaraska sarea sortzen ari da, etorkizuneko bidea finkatzen, hizkuntza komunitate sendotzeko helburuarekin.

Gero Abaraska sarea bihurtu den hausnarketa prozesua esan bezala, 2010ean hasi zen eta larunbat honetan parentesia itxi du hausnarketaren beraren eta bere ondorioen berri emanaz.

la bi urteko prozesua izan da, Ttakunen hausnarketa taldea sortu zenetik: Gerora hartuko den bidearen oinarriak finkatzeko asmoarekin, Ttakunen inguruko hainbat herritarren ekarpenak jaso dira, hurrengo urteetako ildoak definitu ahal izateko.

Hainbat iritzi ezberdin bildu dira beraz, denetariok, besteak beste, euskalgintzan dihardutenenak, ikastetxeetako ordezkariak, herriko soziologoak edota elkarte langileenak, guztira, hogeitabat pertsonaren ekarpenak, Ttakunek orain arteko egindako bidearen eta gerora begira kontutan hartu beharrekoen inguruan.

Guzti honen berri eman zen larunbateko aurkezpenean, hausnarketa prozesuan jasotako hainbat ekarpen ezagutu eta

aztertu ziren, jorratu beharreko arloei buruzko gogoeta ugari. Oro har, Ttakun behar beharrezkotzat jotzen da, eta erreferentia da ez bakarrik herri mailan, baita kanpoan ere.

Abaraskaren bultzatzaileen ustez, lortu nahi den geroa ez da besterik gabe heltzen, "eguneroko jardunaz eraiki behar da". Argi dute prozesuan parte hartu duten euskaldunen komunitatea "tribuna" deitzen dutena- sendotzea dela helburua, erakargarria bihurtu, lehenetsi, zabaldu... eta horretarako hainbat arlotan lan egin behar dela: besteak beste langileak prozesuan murgildu daitezten trebatu, goxatu eta motibatuz, transmisioa landuz ikastetxeekin eta gaztetxoekin lan eginez, sarean eta elkarlanean oinarrituz edota teknologia berriez baliatuz...•

"Oroitarrria" dokumentala Jalgin

Asteazkenean "Argia Eguna" egingo da Jalgin Ruben Marcillaren "Oroitarrria" dokumentalaren proiektioarekin. Honakoa 21:30ean hasiko da eta hilero burutuko den ekintza izango da. Urrian hasi zen Argia aldizkariaren dokumental eta bideoak doan ikusteko hitzordua herriko Jalgi Kafe Antzokian eta ekimena ikasturte osoan zehar burutuko da.

46 minutuko iraupena duen "Oroitarrria" dokumentalak Iruñean Germanen oroimenez jarritako oroitarrria du abiapuntu, poliziak 1978ko Sanferminetan German hil zuten

lekuan. Dokumental honetan zuzendariaren hitzetan "beteak ahaztara nahi dizkigun pertsona, gertakariak eta zenbait erabaki politikoki ekartzeko gogora". Gertaera horiek duela 30 urte baino gehiago izan ziren arren, "oroitarri honek oraindik egun gobernatzen dutenak gogaitzen ditu".

Argiaren helburua multimedia eduki hauek Euskal Herriko txoko guztietara iristea da eta dagoeneko 30 udalerritan eginen ari dira proiektioak. Hama bi saio programatu badira ere, harrera ona izatekotan, proiektio gehiago egingo direla aurre-

ratu dute Argiako ordezkariak.

Otsaileko emanaldiari dagokionez, "Lucio" anarkista ezagunaren bizitzan oinarritutako dokumentala izango da ikusgai. Igeltsero ogibidez, Francoren aurkako ekintza mota gehienetan parte hartu zuen baina kolperik handiena hirurogeita hamarrek hamar-kadaren bigarren erdian eman zuen. 3.000 milioi pezetako iruzurra egin zion First National Bank (orain Citibank) etxeari dirua berak sinesten zuen kausetan inbertitzeko. Filma Goya sarietarako izendapena jaso zuen. •

ATERPEA

Gabonetako saskien irabazleak

Lasarte-Oriako Aterpea Merkatarien elkarteek kideek zozketatzen zituzten Gabonetako saskiek badituzte irabazleak.

Zozketa urtarrilaren 5ean egin zen eta honako hauek dira zozketako herritarrik: Ekain liburudendan Iker Ugarteburu, Arregi elektrizitate dendan Esteban Martin, Martinez Multimedian Juan Carlos, Sukoa burdindendan Milagos Barrena, Goxogi gozotegian Maruja Garcia, Bideo-lagunak dendan Angel Candela, Nogues jantzi dendan Josune Artola, Ormazabal loradendan Ana Olaciregi, Iturbe zapatadendan Jose Antonio Hernandez, Dakaran Pedro Arribas, Abreu bazarrean Alejandro Longueira, Zumaburu liburudendan Ana Maria Azcona, Urruzola mertzerian Josebe Ibarburu, Lizarri optikan Margarita Fernandez, Maya lenteria dendan Angela Gomez eta Olmi mertzerian Mertxe Cordon. •

INAUTERIAK

Olinpiadak aurtengo inauterietako gaia

Dagoeneko inauteriek badute moztorra gaia, Olinpiadak. Herri-tarrak has daitezke moztorroak prestatzen, kirolariak hartuko dituzte herriko kaleak otsailaren 18ko asteburuan.

Udalak bere aldetik, Inauterietan parte hartzeko eskabideak egiteko epea zabaldu du gaurtik hasi eta hilaren 27ra arte. Honakoak Lasarte-Oriako Udalaren Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira eta oinarri zein beharrezkoak diren inprimakiak, Manuel Lekuona kultur-etxeko bigarren solairuan izango dira eskuragarri. •

GAZTEBURUAK

Gozatzeko bi aukera Gazteburuetan

Gazte klubeko kideek urtarrilaren 21a eta otsailaren 4ean ongi pasateko bi hitzordu berri dituzte Gazteburuetan.

Hilabete honetan, urtarrilaren 21ean, larunbata 16:00etatik aurrera koadrilen mahai jolasen txapelketa izango da. "Honetan Koadrilek eman behar dute izena," azpimarratu dute. Honetarako Ttakun kultur elkarte bulegora hurbildu behar dira edo 943 371 448 telefono zenbakira deitu behar dute, azken eguna urtarrilaren 19a izango da.

Otsailaren 4an arratsalde, berriz, Donostiako Txuri-Urdin izotz jauregia txangoa izango dute. Prezioa 10 eurokoa izango da Ttakuneko bazkideentzat, eta bazkide ez direnek 12 euro ordaindu behar dituzte.

Izema ematea bulegoan edo telefonoz egin daiteke. Ordainketa bulegoan, Internet bidez edo Kutxan 2101 0048 25 0010089696 zenbakian egingo da. Azken bi kasuetan, ordainagiriaren kopia bat aurkeztu behar da Ttakun kultur elkartearen edo aisia@ttakun.com helbidera bidali beharko litzateke. •

OINATZ TALDEA

Donostia ezagutzen

Oinatz taldeak oraingoan Donostiara egingo du irteera urtarrilaren 22an, igandean.

Gipuzkoako hiriburuko historia eta bitxikeriak ezagutuko dituzte taldeko kideek. Horretarako Mota Gazteluan dagoen Historiaren etxea, Untzi Museoa, Santa Maria basilika eta San Bizente eliza bisitatuko dituzte. Hitzordua goizeko 8:45etan izango da tren geltokian.

Gainera, bazkaltzen geratzeko aukera izango du nahi duenak. Bazkariak 13 euro balio ditu eta hau dastatu ahal izateko Ttakun kultur elkartearen eskuragarri izango den txartela hartu beharko dute aurretik. •

IKASTAROA

Arrisku handiko janariekin lan egitea

Elkolab enpresak, Lasarte-Oriako Udalaren Osasun Sailarekin elkarlanean, ikastaro bat emango du, arrisku handiko janariak erabiltzen ikasteko.

Janari maneiatzaile ikastaro berri hau ostalaritza arloari zuzenduta dago, eta Osasun Sailak eskatzen duen autokontrolaren inguruko gai eta edukiak jorratuko ditu.

Ikastaroa, asteazkenean, urtarrilaren 18an emango da arratsaldeko 16:00etatik 20:00tara bitartean Osasun zentroko bigarren solairuko erabilera anitzeko aretoan. Prezioa 45 eurokoa da pertsonako, baina beharpena izango dute soldatapeko langile eta langabetuek (hauek 35 euro ordainduko dituzte).

Informazio gehiago jasotzeko edo izena emateko, deitu KIUB(OMIC) Kontsumitzaileen Bulegora, 943 361 605 telefono zenbakira edo Elkolab kooperatibara, 943 533 303 zenbakira. •



Antonio Merceroek konposatutako ereserlia kanpuz zuten ikusle eta kontzertuko partaide guztiak.



Akordeoi joleek kontzertu borobila eskani zuten eta amaitzean, emotioak gainetza egin zuten.



Elias Gokourriak ezin hobeto zuzendu zituen musikari guztiak.



Erkezes dantza taldearek ere omenaldia egin nahi izan zioten Zero Setteri.



Zambra taldeak ikusleaz polka eskani zuten. Irudian, kritikariek antzerria.

Zorionak, Zero Sette

Zilarrezko urteurrena modu ezinhobean ospatu du orkestrak, larunbat arratsean jaialdi zoragarria oparituz herritar guztiei

Zero Setteren XXV. urteurrenako kontzertua bukatu osteko minutuetan Lasarte-Oriako taldearekiko atxikimendua eta esker ona zen nagusi ikusizumean egon ziren herritarren artean. Alde batetik, zorionak, 25 urte bete-za gaitza handia delako edozein arlotan, baita musikari ere, eta eskeriak, berriro, herriko hainbat taldek lagunduta eskainitako kontzertu gogonagarriengatik.

Emozioa izan zen protagonista jendez lepo zegoen Manuel Lekuona kultura-etxe-ko areto nagusian. Hasi eta buka, oso ikusizum polita eskaini zuten bai akordeoi joleek euren, bai Elias Gokourria zuzendariak. Baina ezin ahaztu Zero Setteri lagunduz kontzertuan zehar

parte hartu zuten guztien lana ere: Alboka Abesbatzak; Erkezes Dantza Taldeak; Amaia Gonzalez eta Jose Mari Orbegozo dantzariak; Zambra dantza taldeak; Beteranoen dantzariek eta Naroa Galkoetxea eta Andrea Gonzalez trikitilari bikoteak modu zoragarrian hornitu zuten Zero Setteren jarduna kontzertuak momentu bakoitzean eskatzen zuten eritimoa primeran irakurriz eta horren arabera jokatu.

Amaiera zirraragarria

la bi orduko kontzertua izan zen, baina momentu gorena amaieran etorri zen. Kontzertuan modu batera edo bestera parte hartu zuten guztiak oholitza gainean zeudela, Zero Sette Merceroek konposatu-

tutako Lasarte-Oriako ereserkiaren lehen notak jotzen hasi zen. Malkoren bat isuri zuten orduan herritar bat baino gehiago, eta zutik jarrita, gogoz kantatu zuten denek gure herriko ereserkia. "Zeruan izarik dan arte, bere buruaren jabe, beste herrien lokarrik gabe nahi degu gure Lasarte". Oilo-purdia jartzeko modukoa.

Horren ostean, hainbat oroi-garri banatu zituen Zero Settek, tartean, Mercero maisu handiaren familiari omenaldi sentitua egin zioten. Lasarte-riatarrak kosta egingo zaie larunbatean bizitakoa ahatzea, bereziki Zero Sette ahatzen duten kide guztiei, herrikoak maila eta gorespen keinuak ez baitira egunero sentitzen. •



Antonio Merceroen alargunak emozioz jaso zuten oroi-garria.



Amaia Gonzalez Caballero eta Jose Mari Orbegozo dantzariak.



Berriki udabiren zenean oroi-garria eman zion Zero Setteri: Andrea Gonzalez eta Naroa Galkoetxea trikitilariak.

AZKEN MUGA TABERNA

Goizeko 07:00etan irekitzen dugu!

Gosarietan prezio bereziak!

Beko bidea 2 behe • Lasarte-Oria

Berriz irekita nagusi berriekin

Lasarte-Oriako Dieborrazak, Alboka, Erkezes eta Zero Setteren laguntza Donostian marra jo zuten.

Lasarte BHI boleibol taldea sortu da

■ Ideia DBH 1 eta 2ko neskena da ■ Oihan Agirretxe eta Beñat Bobillo gazteak dira entrenatzaileak

Lasarte BHI institutuko DBH 1 eta 2ko neska talde batek boleibol taldea sortu berri du Lasarte-Orian. Aurtentzen abiatu duten ibilbidea luzea izatea espero dute. Talde berriaren nondik norakoak ezagutzeko, Oihan Agirretxe, entrenatzaileetako batengana jo dugu. Berak eman digu informazio gehiago.

Jon ALTUNA EGITEGI

Oihan Agirretxe entrenatzaileak esan digunez, taldea sortzeko ideia institutuan bertan sortu zen, jolas garaietan boleibola egiteko ohitura baitute hango neska-mutiek.

Pixkanaka-pixkanaka jendeari boleibola gustatzeko joan zaiola adierazi du eta bertako neska talde batek institutuan boleibol taldea osatzeko proposamena luzatu ziola soinekatu irakasleari.

Horrela, neskek ondo pasatzeko helburuarekin eta poliki-poliki beraien teknika eta zelai barruko jarrera (erasorako grina, taldekide arteko komunikazioa...) hobetzeko asmoarekin talde polita osatzea lortu dutela aitortu du Agirretxek.

Bi entrenatzaile, ilusio bat

Oihan Agirretxerekin batera, Beñat Bobillo gaztea ere ari-

tzen da entrenatzaile lanetan, eta euren egitekoan gustura dabiltzala esan dute: "Orain arte ez Beñat ez ni ez gara boleibol entrenadore moduan inoiz aritu, eta erronka bat bezala hartu dugu. Gure helburua neskek ahalik eta ondoren pasatzea da, eta ahal den heinean hobetu ere egin nahi dugu. Partiduen emaitzek ez gaituzte kezkatzen", dio Agirretxek.

Gustuko lekuan...

Aldaparik ez dagoela dio esaera zaharrak. Euren kasuan, neskek gogotsu dabiltzala esan du, haiena izan baitzen taldea sortzearen ideia eta horrek "gauzak erraztu" egiten dituela uste du.

Kopuruz ere bikain dabilta: "Gehienez 12 fitxa egiteko aukera dago eta 12 neska daukagu partiduak jolasteko aukerarekin. Hala ere, orain



Larunbatean, ligako partidua hasi baino lehen, Lasarte-Oriako kiroldegian ateratako talde-argazkia.

beste bi neska animatu dira, eta entrenatzera behintzat, etortzen dira. Entrenamendu osoagoak egin ditzakegu horrela", dio Agirretxek.

Kompetentzia gogorra

Herriko neskek ez dute esperientziarik, lehen urtea dute eta gogorra egingo zaie ziuurrenik aurtengo denboraldia.

Izan ere entrenatzaileek argitu dutenez, beste taldeen

maila "oso altua" da jadanik kategoria honetan, beraz, pazientziak hartu beharko dute aurtengo denboraldia. Alde handienak "teknikaren alorrean eta bereziki sake egiterakoan" daudela aitortu digu Agirretxek.

Ligan buru-belarri

Lau taldez osaturiko liga batean ari dira parte hartzen herriko neskek. Donostiako

hiru talde eta Lasarte BHI lehiatzen dira bertan. Aurtengoan ahalik eta itxura onena ematea izango dute xede, nahiz eta jakin ligan postu on bat lortzea "oso zaila" izango dela.

Hala ere, arestian aipatu bezala entrenatzaile bikoteak ez die emaitzei gehiegi begiratzen, galtzea "inorentzat gustagarri" ez dela aitortzen duten arren. •



Parte-hartzaile bakoitzak zortzi aldiz bota behar izan zuen 9 kiloko bola.

Segurako Txoritegi nagusi Michelingo bolo txapelketan

Igandean goiz eta arratsaldean Michelingo bolatokian jokatuko den taldekako Bolo Txapelketarekin hasi da ekainera arte luzatuko den 2012ko bola denboraldia.

Taldekako txapelketaren ondoren jokatuko dira bikotekakoa, Lehendakari Txapelketa, Gipuzkoako Kopa eta azkenik, Gipuzkoako eta Euskadiko txapelketak, maiatzaren 27an eta ekainaren 2an hurrenez hurren.

Igandean Michelinen hasi eta Gabirian datorren igandean egingo den norgehiagokarekin amaituko den Taldekako Txapelketa honetan Lasarte-Oriako Ostadarreko seikotea parte hartzen ari da eta momentuz seigarrenak izan ziren igandean 240 brila botata. Segurako Txoritegi nagusitu zen 265 brilarekin, Zeraingo Listormendikoak izan ziren bigarrenak 264rekin eta Urnieta hirugarrenak 262rekin.

Bakarka, gehiena 48 brila bota zituzten hiru parte-hartzaileak eta berdinketa hausteko tiraldian, Segurako Zeferino Agirre izan zen nagusi, Urnieta Imanol Iruetagoiena eta Xabier Lizeagaren aurretik. Lasarteoriatarren artean onena Joxean Lasa izan zen bederatzigarren 46 brila botata.

Guztira sei jokalariz osatutako 11 talde ari dira txapelketan parte hartzen. •

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



GFako Kultura eta
Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA


Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A.
Aleak zenbakiko: 7.800 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarrik ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Egunero

Erakusketa

NAROA ARABITORRE artistaren MARGOEN ERAKUSKETA. JALGI KAFE-ANTZOKIAN, **urtarrila osoan zehar.**



Igandea, 22

Zinea

"Kika SUPERBRUJA 2" filma HAURRERENTZAKO ZINEAREN barruan. MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEAN, **17:00etan**, GAZTELANIAZ. **Sarrera 3,40 euro.**

Osteguna, 26

Zinea

OSTEGUN ZINEAREN baitan emango da CIRKUS COLUMBIA filma, Okendo Zinema taldearen eskutik. MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEAN, **21:30etan**. GAZTELANIAZ. **Sarrera 4,40 euro.**

Ostirala, 27

Kontzertua

Añongako BI "N" BI taldea gaztearen rock doinuak entzungo dira. JALGI KAFE-ANTZOKIAN, **23:00etan**



78ko Sanferminak eta German Rodriguez

Argia egunean OROITARRIA dokumentala eskainiko da. 1978ko Sanferminetan gertatutako ekintza politikoak eta German Rodriguezen heriotza aztertzen duen filma izango da ikusgai.

ASTEAZKENA 18
21:30EAN
JALGI KAFE-ANTZOKIA
EUSKARAZ

Metal gaua

Oiartzungo HIRA eta Usurbilgo MENDEKU ITXUA taldeen eskutik rock eta heavy metal emanaldia entzuteko aukera izango da, metal gauaren barruan. ABEND KAFE-ANTZOKIAN, **00:00etan.**

Larunbata, 28

Antzerkia

HAURRENTZAKO ANTZERKIA den OGRO TXIKIA lana ikusgai. MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEAN, **18:00etan**, EUSKARAZ. **Sarrera on-line hartuta 3 euro, egunean bertan 3,40 euro.**

Oharrak

Loidi-Barrengo aparkalekua egokituko dute

Lasarte-Oriako Udaleko Zerbitzu sailak jakin arazi nahi du Loidi-Barrengo frontoia ondoan dagoen autoentzako parkinean lekua egokitzeko konponketak egingo direla urtarrilaren 16 eta 17an.

Konponketa hauek egun batean baino gehiagotan egingo dira aurreikusten da, egun bakoitzean eremuaren zati bat konponduko da eta beste zonaldean aparkatzea posible izango da. Udalak jakin arazi duenez, egunez-egun udaltzainek jarriko dituzte beharrezko seinaleak.

Sarrreran zozketa

Udaleko kultura sailak Manuel Lekuona kultur-etxean urtarrilaren 28an izango den "Ogro Txikia" haur antzerkirako sarrrerak zozketa-tuko ditu.

Zozketa hauetan parte hartu ahal izateko Lasarte-OriaSarean.eu web gunean harpidetuta egon behar da.

Zozketa urtarrilaren 25ean burutuko da eta emaitza email bidez jakinaraziko zaie parte hartzaileei.

Ostadar SKT-ko zozketak

Ostadar SKT-ak jakin arazten du, bazkideen artean zozketa-tu duen otarraren zerbakia

059 izan da eta Tomas Arrizabalagari egokitu zaiola.

Era berean, elkarteak urtero "El Niño"ko loterieren batera nekazal etxe batean bi pertsonentzako asteburua pasa zozketatzen du eta aurtengo zerbakia irabazlea 71.208 izan da.

Beraz, irabazleak Ostadarreko bulegora deitu behar du saria eskuratzeko.

Galdutako gauzak

Takun kultur elkarteak kideek Santo Tomas azokaren ostean zapi bat eta Olentzeroren ongi-etorri jaialdian amantala bat aurkitu zituzten. Jabeek aisia@ttakun.com helbidean edota 943 371 448 telefono zerbakian eska ditzakete galdutako gauzak.

Gasolina merkeago

Aterpea-ko txartelarekin

Oriako Allerru gasolindegian depositua bete eta Aterpeko txartelarekin ordaintzen duten herritarrek, ordaintzea egiteko garaian, %2ko beherapena izango dutela gogoratu du Lasarte-Oriako merkatarien elkarteak.

Oharrak jartzeko:

Geltoki kalea 4 943 366858
txintxarri@txintxarri.info

Liburutegiko ordutegia

Astelehenetik ostiralera 10:00 - 13:00
eta arratsaldetan 16:00 - 21:00
Larunbata 9:30 - 13:00

Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki kalea 18 • Tel.: 943 376181

Esazu irratiko programazioa



Ostiralero programa!

FMko 105,5-ean izango gaituzue ostiralero 9:30etik 10:45era

Eskutitza

EAJ-ri erantzuna

Joan den astean, Lasarte Oriako EAJ-PNVek, ipuin bat kontatu zigun orriotan "Istoria penagarri baten ipuin triste" izenburuarekin. Lehendik ere makina bat ipuin entzunak ditugu errauste planta toxikoaren defentsan.

Gipuzkoa Zero Zabor taldeko kideak ameslaritzat jotzen gaituzte. Ez zaie arrazoirik falta. Guk, erraustegiaren pozoina ernasten bizi beharrekin etsitzeari muzin egin, eta munduan zehar hondakinen kudeaketan dauden praktika egokiak Gipuzkoan zabaltzearekin eginen

dugu amets. 6 milloi biztanle dituen Flandria bezalako herrialde bateko gaikako bilketa maila (%82) izatearekin eginen dugu amets.

800.000 biztanleko San Francisco bezalako hiri batek daukan Zero Zabor programa bat Gipuzkoan izatearekin eginen dugu amets.

Birzikla ezin daitekeen errefusa Capannorin bezala tratatu eta egonkortzeko sistemak hemen edukitzearekin eginen dugu amets.

Gipuzkoan bilketa sistema eraginkorrak abian jarri dituzten Usurbil, Hernani, Oiartzun eta Antzuolako emaitza bikainak herrialde

osoan zabaltzearekin eginen dugu amets.

Zero Zabor ereduak ezagutzeko itsaso eta ozeanorik zeharkatu behar ez izatearekin eginen dugu amets, Gipuzkoan bertan ikusi ahal izatearekin alegia.

Hondakinen kudeaketan badagoelako konponbide, on, ez kutsakor eta merkea.

Baina amets egin bakarrik ez. Lana dugu batzuek sartu nahi diguten etsipenetik amets hoiak errealitate bihurtzera eramango gaituen zubia. Ez dugu onartzen, EAJ-PNVek bezala, Lasarterrak urtean 250.000 tona zabor erreko dituen errauste planta baten ondoan bizi

behar izatera kondentatuko dituen etsipen antzurik.

Abagune itxaropentsu honetan, gurekin batera etorkizun hobeto baten alde amets eta lan egin nahi duten Lasarterrei dei eginen diegu, GZZrekin harremanetan jarri, eta elkarrekin Lasarten bertan amets hoiak errealitate bihurtzeko lanean has gaituzten. www.gipuzko-azz.com web orrian topa dezakezue gaiari buruzko informazioa eta gipuzko-azz@gmail.com helbidearen bidez jarri zaitezke gurekin gurekin harremanetan.

Gipuzkoa Zero Zabor

Dagokionari

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkarira. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943-366858 zerbakia deituta, posta elektronikoz txintxarri@ttakun.com helbidera bidaliaz. Gure bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).



Ibitariet arretaz entzun zituzten Joxe Mari Irazusta Gipuzkoa Zero Zabor elkarteak kidearen azalpenak.



Arratsaldean kalejiran etori ziren Oriatik Okendora.



Ibitariet lau orduko martxa burutu dute.

Proiektu txikitzaileen aurka

70 bat lagunek burutu zuten igandean protesta martxa

Gipuzkoan azken aldian denon ahotan dabilta kostu ekonomiko altua duten makro-proiektuak. Urrutira jo gabe, Buruntzako harrobiaz gain, Lasarte-Oria inguruko lurretan erraustegia eta makrokartzela eraikitzeak asmoa dute, eta baita Buruntza azpitik Abiadura Handiko Trena pasatzeko mendia alde batetik bestera zultzeko ere. Horrelako azpiegitura lan handiak gelditzeko helburuarekin, mendi martxa antolatu zuten igandean.

Jon ALTUNA EGITEGI

Herritarrez gain, Gipuzkoa Zero Zabor edota AHTaren aurkako mugimenduko kideek parte hartu zuten martxan asko Euskal Herri osotik etorritakoak "proiektu txikitzaileen" aurka egin, eta hauek beharrezko ez direla salatzen.

Okendotik Zubietamendira

Ibilbidearen lehen zatian, makrokartzela egin nahi duten lekura joan ziren. Hara iristean, errauskailua eta makrokartzelaren inguruko informazioa eman zuten bai ahoz zein idatziz. Antolatzaileek azaldu zuten, mila pertsona hartzeko gaitasuna

izango du makrokartzelak eta ehun metro eskasera kokatu dute erraustegia, tunel baten bidez lotuta.

Joxe Mari Irazusta GZZeko kideak hainbat datu eman zituen Zubietako erraustegiaren inguruan, bai sortuko lituzkeen hondakin eta gas kutsakorrei buruz, bai eta erraustegi batek bigarren mailan eragingo lituzkeen ondorioak azalduz.

Ezkutatzeke nahi

Mikel Alvarez AHTaren aurkako mugimenduko kideak azaldu duenez, erraustegia "ahalik eta modu ezkatuenean" egin nahi dute, jendeak bertan egingo dena ikus ez dezan. Hori dela eta, sakonune antzeko

batean eraikitzen hasiko dira errauskailua, ondoren, mendixka artifizial txikiez inguratuta, inguruko herrietatik tximiniaren punta besterik ikus ez dadin.

Buruntzan bazkaria

Zubietamenditik jaitsi eta Buruntzako tontorra zapaldu ostean, San Rokeko aterpetxean bazkaldu zuten denek. Bertan, Superportuaren aurkako sindurak biltzeaz gain, AHTaren aurkako mugimenduko Hilario Manzanedo bergararrak Euskal Herriko harrobiak buruz hitzaldi txiki bat eman zuen, hauek ekosisteman eragiten duten talka nabarmenduz.

Bestalde, AHTaren proiektuak ere izango du eraginik Buruntza aldean. Buruntza mendia alde batetik bestera zeharkatuko du tunel luze baten bidez Zizurkil aldetik Urnieta aldera iritsi ahal izateko; lerro zuzenean eta aldaparik egin gabe mota honetako trenbide guztiek bezala.

Trikitixarekin amaiera

Arratsaldean, ibilaldiari amaiera emateko asmoz, Iratxe Zelaia eta Enara Iregi trikitilariet girotuta Oriatik Okendorainoko bidea egin zuten kantuan. Bidean zehar, "Txikizioa hemendik, negozioa handik, AHTrik guk ez dugu nahi inondik", bezalako aldarrak abestu zituzten.

Amaieran, Javier Melchor Erraustegiaren aurkako plataformako kideak laburbildu zuenez, eurak Gipuzkoan aldaketa sozial bat gauzatzearen aldekoak dira, baina horretarako beste azpiegitura eredu baten alde lan egin beharra dagoela uste du. •



Makrokartzela egin nahi duten tokiak. Tunelaren beste aldean erraustegia legoke.